

ALEXANDER MARTINEZ ITURRIA

IRAUMEN

LIV DONOSTIA HIRIKO KUTXA
LITERATURA SARIAK

algaida



Jon Kortazarrek, Itxaro Bordak eta Aritz Gorrotxategik osaturiko epaimahaiak *Iraumen* kontakizun-liburuari eman zion LIV Donostia Hiriko Kutxa Literatura Saria, euskarazko Kontakizun modalitatean.



Ilustrazioa: *Narciso y el fondo del mar*, Salomé Semolué

Lehenengo edizioa, 2019

© Alexander Martínez Iturria, 2019

© Algaida Editores, 2019

Avda. San Francisco Javier, 22

41018 Sevilla

Telefonoa 95 465 23 11. Telefaxa 95 465 62 54

e-mail: algaida@algaida.es

ISBN: 978-84-9189-060-7

Lege gordailua: SE. 1968-2018

Espanian inprimatua-Printed in Spain

Eskubide guztiak gordeta. Legeak lan honen edukia babestu eta kartzela zigorrak edota isunak eta kalte eta galeragatik kasu bakoitzean egoki izango diren indemnizazioak ezartzen ditu literatur, arte zein zientzi lana edo beronen eraldaketa, interpretazioa edo artezko exekuzioa edozein eratako euskarritan finkatuta edo edozein eratako bidez komunikatuka, erreproduzitu, beretu, banatu edo agirian komunikatuko dutenentzat.

—Nondik datoz bestela ametsak, fikzioak,
non aurki ditzaket desirak, oroitzapenak,
non?

Non bizi da *fantasia*, errealitatean ez baldin bada?

IRAUMEN

Iraume blue(s)	15
Dantzan, begiak itxita dantzan	27
Yabba dabba do	49
<i>Brenda, Brenda</i>	55
<i>Basberria</i>	65
<i>Azken hitza</i>	78
Amets	81
La petite princesse	109
kadalsI	119
Gatibuen dantza	137
Under Pressure	141
Zazpi gau	159
<i>Hitzetan bizi</i>	164
<i>Egun arrunt bat</i>	169
<i>Tempus fugit Etengabe</i>	175
<i>Show must go on</i>	180
<i>Ametsak amets</i>	184
<i>Trenbidearen beste aldea</i>	191
<i>Kayek, ametsen zaindari</i>	197

*Originaltasuna beste baterako utziz,
ama, aita, zuentzat*

«Chapter one.
He adored Iraume City. He idolised it all out of proportion.
Uh, no. Make that «He romanticised it all out of proportion.»
Uh... no. Let me start this over.

«Chapter one.
He was too romantic about Iraume,
as he was about everything else.
He thrived on the hustle, bustle of the crowds and the traffic.
To him, Iraume meant beautiful women and street-smart guys
who seemed to know all the angles.»

Ah, corny. Too corny for a man of my taste.
Let me... try and make it more profound.

«Chapter one.
He adored Iraume City.
To him, it was a metaphor for the decay of contemporary culture.
The same lack of integrity to cause so many people to take
the easy way out was rapidly turning the town of his dreams...»

No, it's gonna be too preachy. I mean, face it, I wanna sell some books here.

«Chapter one.
He adored Iraume City, although to him it was a metaphor
for the decay of contemporary culture.
How hard it was to exist in a society desensitised by drugs,
loud music, television, crime, garbage...»

Too angry. I don't wanna be angry.

«Chapter one.
He was as tough and romantic as the city he loved.
Behind his black-rimmed glasses was the coiled sexual power of a jungle cat.»
I love this.
«Iraume was his city, and it always would be.»

Iraume, 1979.
Boogie Allen

IRAUME BLUE(S)

GAZTEA IZUTURIK ESNATU ETA KAPELUA ERORI zaio, jasotzeko denborarik gabe zutitu eta bere begirada urduriak pantaila bilatu du. Orain bai, askoz ere lasaiago, bere txapel urdin kuttuna lurretik jaso eta bere lekuan eseri da beste behin. Eserlekuan ondora-tzen nabari da, bagoiaren kulunka motela gozatuz, ametsaren ondorengo istant gozoak dastatuz. Begirada altxatu eta bere begiek metroko bagoia zeharkatu dute, duela ordu erdi linea urdina hasi duenean baino beteagoa aurkitu du. Motxilatik aurikular handi batzuk atera, mugikorrean konektatu eta belarrietan ipini ditu, bere buruak blues baten erritmoan egin du dantza. Bidaiariak hiria osatzen dute bere inguruan, banan-banan begiratu eta bere buruari galdetu dio zein izango den bakoitzaren istorioa, haien bizitzak imajinatu ditu. Motxila ireki eta koaderno eta lapitza hartu ditu eskuartean, orri zurian zenbaki errenkada marrazten hasi da, bat, bi, hiru, lau,

hamabi arte, hamabi zenbaki eta bakoitzaren ondoan zortzi puntuko ilara. Bagoiaren abiadura moteltzen hasi da, gazteak pantaila beste behin begiratu eta orain bai, altxatu egin da, koaderno itxi eta begirunez gorde, abesti baten letra hasi da kantatzen. Kapelu urdina ongi ipini eta leihatilan bere islari begiratu dio, irribarre egin dio, gona bere lekuan jarri eta lurretik bere estutxe beltz handia jaso ondoren irteerara doa. Andanara atera eta linea aldaketa hasi du pasilloan barrena, orduan, bere bizkarrean metroko atea ixtera doazela entzun duenean, gizon trajedun bat ikusi du kantoitik agertzen, bere kontrako noranzkoan korrika bizian. Begirada ate irekietan dauka iltzatu, hortzak gogor estutuz ari da korritzen, baina bertara ailegatzean atea itxi egin zaizkio. Botoia behin eta berriz sakatu arren hauek ez dira ireki, esaldi bat murmurikatu du ingelesez metroak bere martxa hasi duenean. Trena nola urruntzen doan ari da ikusten, korridoretik blues baten melodiak hartzen du geltokia.

(1) Gizonak John O'driscoll du izena eta metro-sarea kontsultatu ondoren bere oinek nasa bukaerara daramate. Bere begirada bila dabil, hurrengo metroa ailegatzeko 3:10 falta dela informatzen dion markagailuaren bila, kliskatu eta hurrengo metroa ailegatzeko 3:40 falta dela informatzen dion markagailuaren bila. Ordularia begiratu eta harrizko azken bankuan eseri da, ezker belauna etengabe darabilen gazte bat dauka ondoan, ez dio kasu handirik egin. Johnek jantzita daraman trajeari erreparatu dio, eskuarekin erreparatu, lihozko galtzerdiak igo. Markagailua beste behin begiratu du, maletatxoan paper

artean ibili eta agenda atera, ireki eta altzoan ipini. Aulkia dardarka dabil alboko gaztearen belaunagatik, Johnek hasperen egin eta zuzenean begiratu dio. Markagailura bueltatu da gero, mugikorra sakelatik atera du eta agendaren gainean ipini, batean irakurtzen dituen gauzak hasi da bestean idazten. Begirada markagailura zuzentzen du beste behin eta dardarka dabil mugikorra, dardarka agenda, dardarka bere hankak eta dardarka eserleku osoa gaztea belauna mugitzeari uzten ez diolako, hasperen egin beste behin eta gazteari zuzenean begira geratu zaio baina hau ez da ezertaz ohartu, azkenik John aulkitik altxatu eta handik urrundu egin da.

(2) Gazte honek Zigor Sánchez du izena eta ez da alboko gizonaren martxaz ohartu, gizon hau agertu denean konturatu ez den bezalaxe. Bere begiak tunel ilunean murgildurik daude, honi galdezka, metalezko orroak metroa iristear dagoela erantzun dio. Ordu bat daruma andeneko harrizko eserleku berean, agian bi. Zigorrek jauzi egin eta zutik jarri da, emozioa nabari zaio, nasa osatzen duten beste bidaiariak ere zutitu dira. Argitu dira bere begiak gerturatzen datorren trena ikustean, bere forma zeharkatu dute, bere gorriaren eta zuriaren distiraz gozatu, gidaria gogoz agurtu. Andanaren ertzera gerturatu da bagoia guztiz gelditu aurretik, gogotsu hasi da botia sakatzen atea ireki baino lehen. Bat-batean geldi geratu da, zurbil, jendea metroan sartzen eta irteten dabil bere inguruan, ez du inork bere irudian erreparatzen. Ateen beste aldean, barran heldurik, bata zuriz jantzitako gizon bat dauka begira, begira geratu zaio, txirrinak jo

du, atear itxi, trena badoa eta Zigorrek poliki-poliki egin du atzera, harrizko aulki hotzean eseri da beste behin.

(3) Bata zuriko gizonak, Juan Anselmino izenekoa, ez dio gehiegi erreparatu andanan begira geratu zaion gazteari, nekatuegia dago horretarako. Bagoia traka-traka dabil tunelean zehar, ikasle garaiak datozkio gogora, *facura* bidea, hiri anonimo honetatik urrundu dute. Begirada nekez altxatu du ate-gaineko marra urdina erreparasatzeko, han pizten eta itzaltzen doazen puntu gorriak. Bere begiek hurrengo geltokira egin dute salto, gero hurrengora, hurrengora, hurrengora, eta horrela hamar zenbatu arte, hartzak binaka jarri eta erlojuari begiratu dio, atsekabeturik. Trenaren marmarrak bagoiaren isiltasuna besarkatzen du, bidaiarien sorbalden gainean dabil. Juan eserleku libre batera doa, han eseri, berokiaren berotasunarekin estali, zurzuriaren itzalean etzanda dago orduan, bere gurasoenean, bere belarrietara zuhaitzaren adarrek xuxurlatu egiten diote haizearekin dantzatzean, eguzki izpiek arima berotu hostoen artean bere aurpegia laztantzean. Baina argiak itsutu egin du supituan, zurzuriaren azpian mugitu eta itzalararen bila saiatu da, atsedena aurkitzen baina alferrik, argi izpiek aurpegian jo eta itsutu egin dute beste behin. Begiak ireki ditu, metroko grisa eta zuria aurkitu ditu, eta berriz ere itsutu duen argia, zergatiaren bila hasi eta bali-teke ametsetan jarraitzea, baina metroaren barruan norbaiten argazki makinaren flasha dela iruditu zaio.

(4) Okabe Hisaerena da ziur aski bagoiko irribarre bakarra goizeko ordu txiki honetan. Egia da hirian dagoenetik bitan lapurtu dutela jada, baina horrek ez du

bere aldarte ona zapuzten. Bere gidaliburua atera eta enegarrenez erreparasatu du eguneko plana, kontent eta era berean harro Iraume osoa egun bakarrean sartzeagatik. Udaletxera doa lehendabizi, bere gidaren azala apaintzen duen eraikin moderno, handi eta distiratsua ikustera, arkitekto famatu harena, izena ez du oroitzen baina badaki ibai ertzean bi etxe eginak dituela, gero hara joango da horiek ere ikustera. Bukatzean tiketak dauzka jada bi museotarako, ez galdetu zeren museoak, baina argazkitan ederrak ikusten dira, gero dendaz gainezka dagoen bulebarretik paseoa, hiri osoaren panoramika eskaintzen duen dorrera igo, lastima gidaliburuan zezenplazarik aurkitu ez izana, gutxienez paella afaltzeko leku batean lortu du erre-serba, kirol portuan bertan, ea zortea daukan eta flamenko-*showa* duen horietarikoa den. Plan horren arazo bakarra zera da, horren goiz esnatzeagatik, bus turistikoak ez duela bere ibilbidea oraindik hasi. Lastima ezin hiria bisitatu bere kaleetatik hiru metrora, hiria osatzen duten biztanleen buruetatik hiru metrora. Gutxienez metroko argazkiak edukiko ditut oroigarri, pentsatu du, eta musika dute zuzenean.

(5) Para bailar la bamba, para bailar la bamba se necesita una poca de gracia. Emiliok ulertu egin nahi du zerk eraman duen bera eta bere akordeoia metro honetako bagoi honetara, hiri honetara, munduko leku honetara. Bera, beti apal beti xume bizi izan den gizona, amets bakarra bere arbasoen lurrak lantzea zuena, familia edukiki, haien alboan zahartu, haien alboan hil. Yo no soy marinero, yo no soy marinero soy capitán, soy capitán, soy

capitán. Thank you, eskerrik asko, gracias. Bere kartoizko baso hutsa bidaiarien begiraden aurrean darabil, baina bere gogo hiri honetatik milaka kilometrora dago. Txanpon baten pisua nabaritzean begirada altxatu eta zurbildu egin da, zurbildu emakume gazte batekin aurrez aurre aurkitzean, urruneko oroitzapen baten irudia, istant gozo batez haur baten aurpegia ikusi du bere begien sakonean, emakumetxo bat jada ziur aski, urruneko lurralde bateko arto-zelai baten alboan, bere zain. Emiliok irribarre egin dio, por ti seré, por ti seré.

(6) Arantxak txanpona pentsatu gabe eman dio, ez daki zergatia, ez ditu horrelako asko egiten. Burua altxatu eta bere ingurura begiratu du, nolabait, harro. Arantxa Granet da, enpresal munduko azken izar gaztea, eta bagoian norbaitek ezagutuko ez balu bere begirada ikusirik azkar ulertuko luke zer emakume klase den, bere konfiantza eta indarrak sorginduta. Bere geltokiko deia entzun baina ez da aulkitik altxatu, metro honetako egonaldia luzatu nahi du ahalik eta gehien. Zeren lanak lapurtzen dion denbora dela eta ez dauka apenas denborarik etxeko zereginak egiteko, imajina ezazue beraz lagunei eskainitako denbora zertan datzan; hiru audio, lau mezu eta bi bideo *smartphone*ko pantailan bulegora bidean eta, lanaldiko nekeak permititu ezker, beste horrenbeste etxerako bueltan. Metroa gelditu eta atek ireki dira, Arantxa pantailaren beste aldetik bueltatu eta bagoitik irtetera doa. Bidaiari berriak sartzen hasiak dira, bultzaka egin behar du aurrera egiteko, atek ixten hasi dira eta Arantxak hanka luzatu du garaiz ateratzeko baina, momentu

berean, bagoiaren beste aldetik datorren beste emakume batek berdina egin du, presa berdina dauka eta bi emakumeek elkar jo dute, atea itxi dira eta Arantxa bagoi barruan geratu da, beste gaztea bagoitik kanpo. Leihatilatik begira dago, badaki lanera berandu ailegatuko dela, badaki denbora gehiago igaro beharko duela metro honen barruan, eta irribarre egin du.

Musika gelditu da, bi gazteak elkarri begira daude, beste emakumeari begira norbere islaren atzean, hain gertu, hain urrun, eskua luzatu eta bestearen irribarreaz laztandu nahi dute, bere izena zein den jakin, elkar besarkatu, bestearen gorputzaren beroa sentitu beste behin, elkar maitatu eta hiri hau ahaztu, mundu hau ahaztu, baina metroak bere bidari ekin dio, urruntzen doaz bi gazteak, urruntzen bestearen irudia oroimenean, hasi da berriz ere hiriaren bluesa geltokian, hasi dira berriz ere bidaiariak dantzan.

(7) Metroa nola urruntzen doan ikusi ondoren lurretik paperak azkar jaso ditu Mirenek, bere bidari ekiteko korridorean zehar. Julia eta Yeisson dauzka eskuak airean keinuka, azkar ez badabil hurrengo metroa galduko dutela. Hirurak ari dira oinez nasa atzean utzirik linea gorriaren bila, hitz eta pitz iraganbidean zehar. Mirenek hitz egin baino nahiago entzun, entzun soluziorik gabeko fisika problemari buruz, entzun zein aspergarria izango den konstruko klasea goizeko azken orduan. Beti izan da horrelakoa, beti izan da entzuten duen horietarikoa, beti izan da ingurua miatzen duen horietarikoa. Gozaten ari da jendetzaren artean pasilloan barrena, go-

zutzen ari da beste noranzkoan nola bat, bi, hiru, bost, hamar bidaiari agertu diren ikusten, nola osatu duten bigarren erreka norabide berean, baina kontrako zentzuan. Orduan hasi du bere jolasa, tanta hauen begirada bilatzen hasi da, berarekin gurutzatzen den pertsona bakoitzari arretaz begiratzuz, irribarre egin du bere begien aurrean ikusezin jakitean. Orduan hotzikara bat, kilima gozo bat, bere bila ari den beste begirada bat nabari duenean, kontrako korrontean begira duen emakumea nabaritzean, elkarri begira geratu dira, beste ibaian igerian dabilen emakumearen begiek agurtu egin dute azkenik, berak ere jolas hau maite duela esan.

Gaur horrela sentitzen delako, jolasteko gogoz, indarberiturik, lasai ari da oinez, patxadaz, poztu egiten du goiz osoa beretzat duela jakiteak. (8) Zeren Xiao Chen gogoz esnatu da lehen eguzki izpien aurretik hiria zeharkatu eta bere merkatu gogokoenera joateko. Bere eskuetan zintzilik dauden poltsetan azaren berdea ageri da, bitxalekaren zuria, erremolatzaren morea, tomate eder batzuen gorria eta artaburuan asma daitekeen horia, baina harrigarria dirudien arren poltsa hauek ez daukate inongo pisurik berarentzat. Goiz osoa berea da, metro urdineko bagoian irribarretsu sartu da gero nora joango den oso argi eduki gabe. Agian Italia plazan jaitsi eta linea horiak itsasoaren gesalaren usaina gerturatuko dio, Zhiguko portuko egunsentiak, amaren sorterria. Ala agian Alberdi hiribidean jaitsi eta linea berdeak pinuaren erretxina usaina ekarriko dio, Hemuko basoko udazkeneko ilunabarra, aitaren sorterria. Iraumera bueltatu da trenak

martxa hasi duenean, gazte batek sorbaldan ukitu eta bere eserlekua eskaintzerakoan. Xiaok ez du esertzeko beharrik nabari eta ezker-eskuin begiratu du, lekua gizon bati eskaini baina honek ezetz esaterakoan, nahiz arima eta izpiritua arin sentitu, aulkian esertzea erabaki du, bere oin zaharrek deskantsa dezaten.

Gizonak automatikoki baztertu du eserlekua, ziur aski lekua onartzea zen onena, hori zen zentzuzkoena, baina oraindik ez da ohitu bere egoera berrira. Edozein kasutan, ez dirudi Onak (9), inon esertzeko beharrik duenik, energiagaz gainezka nabari zaio bere aitaren eskutik tiraka. Berarentzat goiz guztiak dira abentura, linea urdinean zehar bidai oro da jolas, lagun berriak aurkitzeko aukera, hamaika mundu eta altxor berri. Espazio-ontzian dago jaurtiketaren zain, urduri nabari da zenbaketa hasten denean, alarmak ontzia hartzerakoan, azkenik estazioa atzean utzi eta espazioko iluntasuna ageri da leihatilen beste aldean. Izarrak ihesean ari dira tunel bateko lanparen antzera, ontziak dardara egiten du asteroideen artean trenbide baten erritmoan. Iritsi dira azkenik Artizarrera, atea ireki eta zuhaitz-gizona agertu da, gutxika-gutxika egiten du oinez, konkorra ageri da bere enborean eta bere azala arrailduta dago, bere begiak zerbaiten (edo norbaiten) bila ari dira espazio-ontzian. Ona beldur da hasieran, baina zuhaitz-gizonak aurkitu duenean irribarre egin dio, Onak ere irribarre egin dio, ulertu egin du ez dela zuhaitz-gizon maltzurra, baizik eta zuhaitz-gizon zintzoa. Laser pistola gorde eta galdetu dio zein den bere izena, eskuekin keinuka, artizarrera hitz egiten baitaki.

Zuhaitz-gizona ontziaren albora doa eta hemen luzatu egin dira bere sustraiak, honek ere keinuka, bere enbor handia eta adar ahulak poliki-poliki mugituz, Aguxtin (10) duela izena erantzun dio, asko pozten duela lagun berri bat egin izanak.

Zeren makina honetan ezker-eskuin bilatu arren Aguxtinek ez du begirada lagunik aurkitu, ez aurpeirik ezagutzen ez duelako, baizik eta hauetan aurkitzen duen zorrotasunagatik. Horregatik berak denei ari zaie irribarre egiten, aurpegira begiratu eta irribarre bat oparitu die, a ze atso alua pentsatuko dute baina berari bost, pentsa dezatela nahi dutena, horrenbeste urteren ondoren nekata dago bizitzari irribarre egiten ez duen jendea inguruan edukitzeaz. Atsedean hartu du bizkarra eserlekuan ipintzean, koadernotxo atera eta medikura ailegatzeko egin beharrekoak ari da errepasatzen. Haritz zahar honek errepassoa behar du, esan dio haurrari. Bere bihotza poztu du neskatoaren begien dirdira ikusteak. Txikitako oroitzapenak datozkio gogora, zein gustuko zuen John Wayne diligentziari eraso egin, nola egiten zuen bere zaldiak aldapan behera, nola egiten zuen bere geziak hegan zeru oskarbian. Oroitzapenek badute kutsu nostalgikoa akaso, baina malenkonia gabea, badakielako haur hura bizirik dagoela bere barnean, badakielako Onaren begietan ikus dezakeela, baina batez ere horrenbeste urteren ondoren ez duelako bizitzari irribarre egiten ez dakien pertsona izan nahi.

Alboko eserlekuan gaztea begirunez ari da egoerari begira, bere eskua espazio-ontzi eta cowboy istorioak ari da idazten. Gazteak... bai, Iñigo, Iñigo (11) du izena, ba

Iñigok bere geltokiko deia entzun eta zutik jarri da irteten lehena izateko. Zeren bere aitona-amona eta gurasoek beti hitz egin diote bizitzako altxor txikiez, lehen orduko ihintzaren usainaz, egunaren arratseko olatuen soinuaz, eta horregatik egunero gogor saiatzen da hirian ere altxor horiek erreskatatzen. Ateak ireki dira eta Iñigok hanka luzatu du irteten lehena izateko, bagoitik lehena baina baita tren osoan ere lehena, hanka luzatu du estazioa zapaltzen lehena izateko eta instant batez nasa hutsa ikusteko gai da, bere gelditasuna gozatzeko gai, bere isiltasuna eskuartean dauka. Korridoretik gero eta nabariagoa da gitarraren soinua, harmonika batez jotako melodiaren soinua, eta gutxika-gutxika, orkestra-zuzendari ikusezin batek gidatuta, dozenaka oin agertu dira treneko beste ateetatik ateratzen eta hasi da zarata, hasi da mugimendua, hasi da bizitza geltokian. Geldi geratu da Iñigo, metroa nola doan ikusi du, gero nola doazen bidaiari guztiak andana husten, bakoitzaren istorioa imajinatu du, zer edukiko duten azaltzeko, eta andana mortu geratu aurretik bidaiari berriak agertu dira, haien bizitzekin, haien istorioekin. Harrizko aulkian eseri da belauna etengabe mugitzen ari den gazte baten ondoan, begirada altxatu eta ingurua miatu du, tentuz ari da geltokia besarkatzen duen bluesa entzuten. Kontrako andanan emakume bat begira dauka, irribarre egin dio, koaderno atera du beste behin.

Emakumea Berta (12), edo Martina (12), edo Rebeca (12) da eta muxuak nola gorritzen zaizkion nabari du frenteko idazlea begira jarri zaionean. Arkatzari erreparatu dio, bere buruari galdezka ea zertaz ariko ote den idazten.

Bihozkada dauka, hari buruz ari da, haiei biei buruz, haien amodio istorioa azaltzen, nola egin zuten topo lehendabizikoz haien begiradek geltoki honetan, nola haien patua izan zen egun honetan Iraumeko leku honetan aurkitu, inoiz erabiltzen ez duen linea urdina hartu duen egun berebean, nola irribarre bat oparitu eta eskailerak gora joan zen bere bila. Eskailerak gora joango da bai baina bat-batean idazlea ahaztu egingo du, ezabatu egingo zaio bere irribarrearen irudia, aurkituko baitu jakin gabe bilatzen ari zen amodioa, musikaren forma hartzen duen amodioa, geldirik geratuko da emakume gaztearen aurrean, gitarra eta harmonikarekin sortzen duen bluesa gozatuz. Gitarrajoleak emakumea begiratu eta bai, Martina baino Rebeca izan behar duela pentsatu du, Rebecak txanpon bat nola botatzen dion ikusi du, nola bere bideari ekin dion eta urruntzen den heinean nola doan aldatzen, ez da jada emakume erromantiko ameslaria, bere amodioaren bila estazioan gora eta behera dabilena, bulegora doan emakumean bihurtu da, edo erosketak egitera doana, edo ahizparen etxera bazkaltzera, edo amorantearekin ezkurtuko topaketara. Hiritar berri bat pasa da gero gitarrajolearen aurretik, bere buruan izen berri bat azaldu da, istorio berri bat, nota berriak atera dira bere ezpainenatik eta akorde berriak jo ditu bere gitarrak.

Kapelu urdinean hamabi txanponek egiten dute dir-dira, linea urdineko korridore ilunak argitzen dituzten hamabi istorio, blues baten hamabi konpas.